



OSAKIDETZA – EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ADMINISTRAZIO-KONTSEILUAK 2018KO UZTAILAREN 18AN EGINDAKO EZOHIKO BILERAREN AKTA

Lehendakariak deituta, Osakidetza – Euskal Osasun Zerbitzuaren Administrazio Kontseilua eratzen da, Osasun Sailaren egoitzan, 2018ko uztailaren 18ko 10:00etan, eta honako hauek dira bertaratutakoak eta gai-zerrenda:

DEITUTAKOAK

LEHENDAKARIA

Jon Darpón Sierra jauna

LEHENDAKARIORDEA

Iñaki Berraondo Zabalegui jauna

KONTSEILUKIDEAK

Alberto Alberdi Larizgoitia jauna
Hernando Lacalle Edeso jauna

IDAZKARIA

Fátima Ansotegi Elordi andreak jardungo du idazkari gisa, idazkaria, Daniel Salazar Irusta jauna, bertan ez egoteagatik.

Era berean, lehendakariak gonbidatuta, María Jesús Gemma Múgica Anduaga Osakidetza – Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusia ere deitu da bilerara.

GAI-ZERRENDA

LEHENA.- EPE jarduketei buruzko informazioa

Administrazio Kontseiluko lehendakariak jakinarazi du Osasun Sailak Oviedoko Unibertsitateari eskatutako lehen azterketa psikometrikoen zati bat jaso duela, Oviedoko Unibertsitateko José Muñiz psikometria-katedradun jaunak zuzendu du aditu taldea. 2016-2017ko EPE honetan egindako azterketen emaitzen koherentzia-azterketa estatistikoaren txosten bat egitea da helburua, informazio zehatza eta fidagarria eskuratu eta, hala, erabakiak hartu ahal izateko, Administrazio Kontseilu honetan erabakitakoa kontuan hartuta.

Gaur egun, eta lehendakariak jakinarazi duenez, Osasun Sailak aurreikusi ziren 86 lan-kategorietatik 44ren azterketa psikometrikoa jaso du, 3.335 lanpostuko Enplegu Publikorako Eskaintza honetako epaimahai guztiak. Gainera, dokumentu horiek guztiak, hau da, Oviedoko Unibertsitateak helarazitako lehen 44 txosten psikometriko horiek, jaso ahala Eusko Jaurlaritzara bidaltzen ari direla jakinarazi da, *motu propio* bidalketen bitartez nahiz Legebiltzar Taldeek egindako berariazko eskaeren erantzun gisa. Gero, gardentasuna betiere bermatzeko beste ekimen batzuk xedatuko dira.

Azterketa psikometriko horiek jaso eta aztertu izanak bi erabaki garrantzitsu hartzea ahalbidetu du:

- Batetik, egindako informazio-espedienteetan jasotako informazioarekin eta azterketa estatistiko horien emaitzekin osatutako epaimahaien aktei jarraiki, lau informazio-espedienteak ireki zirenetik geldirik zeuden lau epaimahaiak bildu ziren uztailaren 11n. Eragindako epaimahaiek, organo independenteek eta burujabeek, honako erabaki hauek hartu dituzte informazio hori oinarritzat hartuta:
 - Anestesiako bi probak errepikatzea, lehen eta bigarren azterketak, alegia.
 - Angiologiako eta Kirurgia Baskularreko bi probak errepikatzea.
 - Kardiologiako proba praktikoa errepikatzea, bigarren azterketa.
 - Kirurgia Plastikoan prozesua normaltasunez jarraitzea, irregulartasunik hauteman ez delako.

- Bestalde, txosten psikometriko horiek eta kategoria horien aktak aztertu ondoren, Osakidetza Zuzendaritza Nagusiak lau ikerketa-espediente berri irekitzea erabaki du aste honetan. Espediente horiek osatzean, beste ekintza batzuk hartu ala ez baloratuko da. Lau espediente berri horiek 300 izangai ingururi eragingo diete, honako espezialitate hauetan:

- Digestio-aparatua
- Medikuntza intentsiboa
- Traumatologia
- Urologia

Jarraian, lehendakari jaunak prozesuaren gardentasuna errazteko helburuarekin ekainaren 1etik aurrera egin diren ekimenen berri eman du:

- Kontu-ematea Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 8ko eta 22ko kontroleko osoko bilkuretan.
- EPEren jarraipenerako sortutako Batzordearen bilerak, ekainaren 7an eta uztailaren 16an.
- Hainbat bilera sindikatuekin.
- Bilerak sendagile-elkargoekin, ekainaren 13an.
- Bilerak Legebiltzarreko taldeekin, ekainaren 13an, 14an eta 19an, eta uztailaren 9an, 11n eta 12an.
- Bilerak Arartekoarekin, ekainaren 6a eta 18an, eta uztailaren 10ean eta 17an.
- EPE honi buruzko etengabeko informazioa eskaini da ordudunik egin diren Gobernu Kontseilu guztietan.
- Komunikazioa Fiskaltzarekin, eskatutako edozer gauzatan laguntzeko asmoa adierazteko.

Azkenik, hurrengo egunean Eusko Jaurlaritzako Osasun Batzordean egingo den agerraldiaren berri eman du lehendakariak. Bertan izango dira María Jesús Múgica (Osakidetzako zuzendari nagusia), Maite Iruretagoiena (HAEEko zuzendaria) eta Oviedoko Unibertsitateko psikometria-katedraduna, José Muñiz, besteak beste.

Lehendakariak jakinarazi duenez, agerraldi horretan Osakidetzaren zuzendaritzak eta sindikatuak EPEa garatzeko egin duten baterako lana azpimarratuko da, horri esker, hasiera-hasieratik prozesua diseinatu eta EPE honetan gehitutako gardentasun- eta segurtasun-hobekuntzak hartu ahal izan baitira, honako bost eremu hauetan:

1. Epaimahai paritarioen eraketa, lehenengo aldiz.
2. Epaimahaietara sindikatuetakako ordezkari bat gehitzea.
3. Lehen ariketa HAEEri eskatzea, zuzenketa automatizatuko prozedura baten bidez.
4. Ariketen puntuazio-baremoaren aldaketa; 65 puntu emango zaizkio azterketa teorikoari 35 proba praktikoari.
5. Eta oposizio-faseko notaren balioa hurrengo deialdira begira mantentzea.

Gainera, eta lehendakariak jakinarazi duenez, Sailaren eta Osakidetzaren jarduketa bideratu duten hiru printzipioekiko konpromisoa berretsiko du berriz ere, epaimahai bateko kide batek irregulartasunak bete zituenaren susmoak lehenengoz jakin zirenetik.

- Lehenik eta behin, 96.000 pertsonak baino gehiagok parte hartu duten prozedura baten erantzukizuna eta arriskuak bere gain hartzea, Euskadiren historiako EPE handienetako bat izan baita, Osakidetzaaren egiturazko plantillaren % 95ari egonkortasuna emateko helburuarekin.
- Bigarrenik, kategoria batzuetan izan diren aukera-berdintasunari buruzko zalantzei aurre egiteko neurriak hartzea, amaierara arte iristeko eta azterketa egin duten pertsona guztien berdintasuna eta eskubideak bermatu ahal izateko.
- Eta, azkenik, Osakidetza indarberrituta atera dadila lortzeko konpromisoa, etorkizunera begira hobekuntzak zehaztuz eta aplikatuz.

Horretarako, hausnarketa-prozesu bat martxan jarriko dela iragarriko du. Prozesu horretan, Legebiltzarreko talde guztiek parte hartu ahal izango dute, eta etorkizuneko enplegu publikoko eskaintzetan gardentasuna eta segurtasuna are gehiago sendotzea izango du helburu.

Gai Zerrendatik kanpoko puntuak:

Osakidetza – Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiak iradoki duenez, udan zehar plantilla handitzeko espedientea onartu beharko litzateke Eibarreko Ospitalea ireki ahal izateko.

Horrez gain, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak 2016an egindako txostenaren emaitzak laburbildu ditu.

Administrazio Kontseiluko lehendakariak 2018ko ekitaldian zehar ezohiko inbertsioen bat egiteko aukera kontsultatu dio Ogasunari.

Galderak eta eskaerak

Eta beste aztergairik ez dagoenez, bilera amaitutzat eman da, 2018ko uztailaren 18ko 11:30ean.



**Sin.: FATIMA ANSOTEGI ELORDI
IDAZKARIA**
(Idazkari titularra bertan ez izateagatik)



**Sin.: JON DARPÓN SIERRA
LEHENDAKARIA**